



EUSKO-MITOLOGIA

Euskaldun maiteak:

Aspaldiko urtêtan, batikbait juañ dan gızaldian eta oraingoan, jakintsu asko gure eñi maite onetan ařeta aundiarekin ibili izan dira, emengo izkuntza, oifura eta gure izate guztia ikasi naiean. Beren ikaskizunetan geienak oso arteziz irten ařen, gutxi, oso gutxi izan dira guk orañ nai gendukean bezela ikaskuntza oei jařaitu dienak, Folklore'ri dagokion eran benepein.

Ikaskuntza oek ongi egingo badira, euskeraz jakin, bertakoa izan edo bertan bizi, Euskaleria maitatu eta jakiteko zaletasun berezi bat izan beař da. Bañan oezaz gañera, Folklore-jakintza onek zertarako diran lenagotik ongi ikasi beař da.

Ingalateran, Alemanian, Suizan, Polonian eta beste eñi askotan guri, gai onetan, aũrea artu digute. Ořetarako, lagunarte ugari eta aldizkingi asko dituzte. Beraz ez da ařitzekoa aiek beren eñijakin-tza, guk gerena bañio obeki jakitea. Bañan emendik aũrera ez da ori esaten lanik izango, baldin Eusko-Ikaskuntzak, Euskaltzaindiak eta euskaldun jakintsuak eta gai oetako lagunarteak, gauzak itxura dutenez, lan oei ařetaz ekiten badiete.

GAURKO NERE ASMOA

Nere-itzaldi onetan erijakintzaren edo Folkloren zati bat bakara azaldu nai nuke; eusko-mitologiaren edo antziñako jainkoizunen edesti eta orduko sinismen eta oituraen aztarnak.

Gure aurrekoen erlijio edo uskurtza zer eta nolakoa zan azaltzea ez da eraz eta bereala egin ditekera lana. Gure gurasoak etzigiten gai onetan ezer idatzirik utzi, eta ori gake lenagokoak zer egiten zuten agertzea, oso gauza zala da.

Bańan umeak gurasoi eta oek beren aurrekoai entzun eta guregana irilxi diran ezaguera batzuetatik zer edo zer igeri leikeala uste det.

Lan oni ekiteak, ausardi aundia dirudi; bańo erbestetan egin duten gaian asi eta jaraitzeko ez algera gu gauza izango? Gerta liteke oraingo esaunda, zińeskai eta aztikeri guztiak gure antziñako gurasoenak ez izatea; bańan oyetako asko jentil-sinismenen oroipenak dirala ezin gentzake ukatu.

Antziñako jakintzaen oroipen asko gureganano irixten dirala gauza jakina da. Jentilen denborako sinismen eta oitura ugari, gerok garbi dakigula, oraindik gure artean arkitzen dira. Naiz lurreko, naiz odeietako gauzetan; naiz urteroko jai izentatueta, zaren esaunda, sinismen eta oitura ikusgarriak saritan azaldu oi dira.

Larrien oiturak ez ezik, baita umeen arteko jolas eta erabilkundak ere askotan aspaldiko zaren benetako oituratatik datozen ondo-rengo, ero ta kimuak izan oi dira.

Gure lenagoko gurasoak, naiz eizean, naiz gudaetan, uztai-azkonak eren izkilutzat erabiltzen zituzten. Gizaldi asko dira, oitura au larrien artean galdu zala; bańan ez ala umeen artean. Orelako uztai-azkonak maiz asko gure eri bazteretan ikusi izan ditut, eta neronek ere txikitari egin eta erabili izan nituan. Orela unizak, berak uste bagerik, aspaldiko gizonen oitura, esaunda, sinismen, izkilu, ontzi eta beste gora-berari beren jolas, etxeoandresketa eta imintxioetan orain arte iraun erazi diete.

Baita umiak izutzeko askotan aipatu oi diran izen, Amalauzanko, Prailemotxo, Ipixtiku eta beste orrelakoak, lenagoko deabru, gaizkiñ edo jainkoizun'en oroipenak izan beaf dute. Antziñako efomatařak, Mania urtzia, umien izugaria, gure Ipixtikuren antzekoa zuten (1).

Era onetan, eusko-mitologiaren gaiak ere zerbait azaldu litezke. Orain gauza oek zatika bezela daude; ezñ ukatu; bañan osorik ziran denbora noizbait izan da. Orduan emen jentil-erlijioa zan. Eta gauzak antza badu: geroztikako kristauen egiazko uskurizarekin batean, Euskalerian orrelako sinismenak bizi izan badira guarteraño, lenago etziran ez gutxiago eta ez igaraño izango.

Ikusi ditzagun aztarna batzuek.

IRUDIZKO AZTIKERIA

Eusko-jentilen uskurtza edo erlijioa irudizko aztikeriakin nastua zan. Eusko-tregoařietan gauza onen asterak maiz bilatu izan ditugu. Ortzezko, ikatzezko, arizko (zingiñari edo ugetzari) eta beste orain bezelako kutunak, ugari agertu oi dira.

Oraindik orrelako sinismerak gure artean ere badira.

Santuen irudiak urarekin buslitzea, gero euri jasa etofi dedin (Ataun'en. Alsasu'n eta Astigaraña'n egin izan dñten bezela), orrelako aztikeri bat da.

Argizarizko gizairudi bat oratzarekin zulatzea [aztiak nai duan gizakia zauritu ustez (Zuñiga)]; txanpon biurak animai botatzea, gure etsayaren soñak okertu eta biurtu ditezten (Ataun, Abadiano); gořotatzen degun gizona urtu eta ezereztu dedin, argizaria eřetzea (Oyartzun, Leiza, Alegria): ora nolakoak diran emengo irudizko aztikeri batzuek (2).

Bañan gertaki oek erlijioarekin zer ikusia badute ere, erlijioari dagozkien gauzak ez dira.

(1) Gaurko eusko-sinismen eta oifura batzuek antziñako efomatařen artean baldin baziran ere, ez da uste izan beaf Efomatik Euskalerira geroztik etofi zirela. Ongi gerta zitekean emendik Efomara eramauak izatea, edo bestela an, emen eta beste Europako eřletan onelako sinismenak antziñagotik zabalduak izatea.

(2) Gal onetan ikusi nere «Paleonografia del Pueblo Vasco». San Sebastián, 1921.

EUSKO-MITOLOGIA'REN AZTARNAK

Gure soro, mendi, leize, ibai ta iturriak jainkozko edo deabruzko izakiz noizbait jentil-uskurtz orek bete zituela esan leike.

Berak baño indar aundiagoko izakiz alderdi guztietatik inguratuak zaudela gure eusko-jentilak ongi ezagutua zeukaten. Oregatik nunbait eguzki, ilargi, ekaitz, zelnbait abere, zuaitz, su, ibai eta arien aurrean burua makurtu eta otoitz egin zuten: nik ala uste beñepein.

ARI IZENTATUAK

Anderegi'ko aña, ipui batek dionez, lenago emakume bat omen zan. Emakume orek, inguruko erminfa batera juan, eta ango Andra Mariaren irudiari erosarioak lapurtu omen zizkion.

Erminfatik atera ta zijoala, aingeru bat bidera irten eta galde omen zion ia erosario aiek nundik sortu zituan. Bereak zituala emakumeak erantzun omen zion, eta ala ez bazan, «aribur» deritzon biraua bere buruari egiten ziola. Biraua egin orduko, ari biurtua gelditu emen zan.

Ataun'go Iturritza'ko Arbotxôta izena duan soro batean, orain dala amabosten bat urte, orelako ari aundi bat an zan. Muskiko artzulo ondotik *Sugâfak* (Anbotoko Damea bezelako izaki batek) jaurtia zala esaten zuten. Añen ondora etzuan iñorik alderatu nai izaten: etzitzaiola ari ikutu bea, aurêz bedeinkatu bage, esan oi ziguten.

Aizkori'ko Urbian «Zorotzari» deritzaion ari aundi bat ba-da. Ez dala ura andikan kendu edo erabili bea esaten dute, aurekoe-tatik oso izentalua dala ta.

Markinako Aretxinaga'ko San Migel'en erminñan ari aundi batzuek, bata bestiarene ondoan, zuelakoen batek onezkero ikusiko zituan. Laster ezkondu nai duten asko aien azpitik igarotzen dira. Baita ari aietako bati puska batzuek kendu eta eraman oi dituzte, agiñetako suiñen sendagariak dirala ta.

Lodio'ko Ermuan, San Antonioren erminia ondoan dagon ari batek oñarasto garbia ageri du: San Antoniorena dala diote. Agiñetako miña duinak aoa urez an bertako Santa Lutziaren iturrian eta oñarasto artara eraman eta an ustu oi dute.

Plazentziako Alxolin mendian ere, Andra Maria'ren oñkada duala dioten ari aundi bat bada. Aizkori mendin, Añiurdi'go «Ama Birjiñaren iturri» aurfear, zulo txiki batzuek dituan ari bat ikusi izan nuan. Andra Mariak, ura edateko makurtu zanean, bere eskuko beatzakin egiñak dirala esan oi dute.

Oen antzeko ipuiak edesten dizkigute Arabako Oiardon, San Formerion, Bujandan, Gaunako San Bitoren, Toranon, Atan, Urdiainen, Leizan, Oyartzunen, Alafen, Elosun, Motrikon, Plazentzin, San Miel Ereñusarekon, Ibarangeluan, Lekeition, San Juan Gaztelugatxekon, eta beste ofelako toki askotan.

Ezin gentzabe sinismen oek danak jentilen garaikoak dirala ziñeztatu; bañan bai jentilak oen antzeko sinismen eta esakunda asko erabiltzen zituztela. Ona arpide bat:

«Cydnus item mediæ discernit moenia Tarsi.
Pegasus hoc olim suspendit cespite sese,
Impressæque solo liquit vestigia calcis.»

(Rufus Festus Avienus: «Descriptio Orbis terræ», v. 1052).

Baita ari'zko kustun (zingiñari) eta gaziña-ikatzak lepotik zinzilik zinginiaren eta begizkoaren kaltez eramatea aspaldiko jentil-oiurak dira.

ITURRI ETA OSIN DONTSUAK

Gure aurrekoak iturri eta osin askori Santuen izenak ipini zizkien. Emen ere, beste tokietan bezela, kristauak gauza oen izenak trukatuz zituztela uste dute, lengo aztikeri edo uskurfa lenbaitlen galdu zedin.

Beteluko iturri osasungarrietako baten izena «Iturri-santu» da; beste batena «Karmen», eta irugarrenarena «Damaiturri».

Ataungo iturri bat jayotzen dan lokiari «Doneiturrieta» deitzen diote.

Eremedio'ko iturri osasungariari «Iturri-santu» esan oi zioten orain eun urte dala.

Urbasa-zelayan dijoan erekatxo batek «Ereka-santu» du izena.

Lodio'ko Santa Lutziren ermita ondoan jayotzen dan ura begiak sendatzeko erabiltzen dute.

Urkiolako Santa Poloniaten ermita ondoko urak agiñeko miña sendatzeko onbidea duala askok sinisten dute; Elduayen'go Kristoren-iturri'ko ura tripa miñentzako; Gauna'ko San Bitor'en ermita azpian jayotzen dana buruko miñentzako; Murgoitio'ko (Befiz) San Juanen ermita ondoan dagoan ura iruntzpekua sendatzeko.

Ereñusareko aitz gafiñean, an goyan, Gernika inguruko efi guttiatetik ikusten dan tokian, San Mielen ermitatxo bat dago. Ango telatutik ariżko ilobi batera jexten dan urarekin askok beren esku-musuak garbitu oi dituzte, eta legortu baño len ermitari iru jirabira eman ezkeru, azik geiago ez dutela izaten esan oidute.

«Ur bedeinkatua» izena duan iturri bat Olazti (Olazagutia) eta Ziordi'ren bitartean jayotzen da. Atz edo beste orielako gaitzen bat dutenak, Doniñe goizean an garbitzera juaten dira. Andik uruli bage da «Andra Mariaren» ermita.

Au bera entzun nuan Zuñigatik bertan dagon iturri batezaz. Inia'da bere izena.

Irañeta'n ere beste ofelako iturri bat bada.

Baila Aranaz'ko «San Juan iturri» eta beste Bidani'ko batezaz ere itxura onetako sinismen eta oiturak aditu izan ditut.

Umerik ez, eta umia nai duten ezkonduak Oñati'ko San Eliasen ermitara joaten dira. Ermita inguruko potzu batean emakumeak bere esku-musuak garbitu oidute. Egikun oni *berau* esaten diote.

Moniñe goizean ur danak onbide berezia diotenez izaten dute. Gauez Donianek ur danak bedeinkatzen dituala, toki katzuetan (Sosañon) esanoi dute.

Bañan sinismen oek, Euskalerikoak ez ezik, beste toki askotakoak dira.

Gure mendietan urbilduko osin batzuek badira. Olakuak geietan ondorik ez dutela eta ez azi eta ez txikitu egiten dirala askotan entzun izan degu.

Gañera Alarmendiko Uñako potzuazaz esaten dute, an ingu-

ruan pelotan jostatzen zehilen ikasle bat, atzeraka zijoala, antxe erori eta ondatu zala.

Bikuñako (Araba), Urbasoko eta beste toki askotako osin aundiezaz, erdian beregana indar egiten dutela esaten dute, eta baita antziñan itzai bat bere idibustariakin aietan ondatu zala ere.

Oen antzeko osin bi *Sicilian* ziralazkoa aditzera ematen digu Maerobio'k (*Satur*, lib. V. XIX). Osin aiek Palika-urtziren aizpak dirala dio berak, eta *an idibuztafi bat, atzeraka zijoala ondatu zala*.

Patu txareko osiñen entsutea ere bada Euskalerian. Salinas Añana'ko eta Arbaiza'ko osiñak ofelakoak dira.

Ona emen, antziñakoak digutenez, Arbaizan gertatua.

Orain osiña dagoan tokian, lenago jauregi eder bat emen zan. Jauregi ofetako nagusietxeoandrak beartsuai on egin zaleak ez izan nunbait, eta beren ateondora zertorzen eskalegaixoai limosna eman bearean zakur gaizto bat axâzen emen zien.

Bañan, Jainkoak ala nai, eta eskekoen erukia zuan neskame bat bai emen zuten, eta ara nun beingo batean Jauregi aldera zetoren eskale bat ikusten duan. Artu erada-ontzia, eta iturira balioa bezela, bere eskupekoarekin irieten da bereala ateraño. Urduan eskaleak esan emen zion irteteko lenbait-len etxe artatik. Eta neskame ori Jauregitik aldendu zan beziñ laster, Jauregi eder ura bere biztanle eta ondasunakin lurpean ondatua izan emen zan.

Ordutik Jauregiaren tokian urgalduzko osin zikiñ ura agertu emen zan.

Urbion'go potzua da beste ofelako izentatuenetako bat. Andik irieten dirala laño motots, odei beliz eta inusterizkoak, aize aroak eta alde gaiztoko erauntsi guztiak diote Amezkoarak.

Ofelako ipui eta sinismenak jentilgaraikoak dirala edestiak adierazten digu.

S U D O N T S U A

Erortzen zaizkalen ortz zârak suari ematen dixkiote umeak, eta baita berriak eskatu ere, esanaz: «Andra Marie, otsi zere ortz zâra,

t'ekatzu berie» (Ataun). Germaniaren mitologian aizeari egiten dioten orelako eskeintze eta eskari bat bada.

San Juan edo Doniñe aurreko gaueko suak antziñako jentil-uskurtzarekin zer ikusi asko dute. Bañan toki askotakoak diralako, ez difut orain oitura oek aipatu nai.

ZUAITZ DONTSUAK

Ustezko onbide arigariak dituzten belar eta zuaitz guztiak ezin neizke emen aitatu. Naikoa da gaur toki batzuetan aotan darabiltz-kifen zuaitz-almenak zuei gogorazitzea. Zeinbait aritzek Doniñe aurreko gauean gaitz asko sendatu deizkela ta, eriak aritz azpitan edo aritz pitzatuetan igarotzera eramaten dituzte Euskaleriko toki batzuetan (Amorebieta, Soskaño, Plazentzia, Oyartzun). Zornotzan esaten dutenez, gero eriak aritzaren gañean zintzilik bere alkon-darea, oroigai bezela utzi bear du. Esan liteke noizbait aritza jainkotzat izan zutela euskaldunak. Beste tokietan, antziñako Gaulan, Grezian eta Erroman orelako ustezko onbideak zituzten zuaitzak, jainkotzat eduki izan zituzten.

Aritza beziñ entzute aundikoa da Elofi. Zuaitz au berez «bedeinkatua» dala diote, eta oregatik oñaztarik etzayola inguratzen. Sinismen eta esaunda onen bidez, Doniñe egunean leio eta ate ondoetan elofi adarak, oñaztarik etxera sartu ez dedin, ipintzeko oitura sortu zan. Baita odei dagonean, kanpotik dabiltzan gizonak, beren aoan edo txapelpean elor-arantza edo adarixo bat eramaten dute. (Ataun, Mañaria).

Erāmua, ereñotza, ideta, eia, eta orelako belar eta landarak bedeinkatxera Elizara eramateko oitura, len gauza oek dontsutzat zeuzkatelako sortua izan bear duala uste det. Axangiz'ko bi gaztaña zuaitz, antziñako ipuietako Puru ta Marie dirala esan oi dute.

Gai onetan oroigarria da Bergarako «Pago-bedeinkatu» dioten pago bat. Urteoro berari kütze bat ezari oi diote.

Baita Plazentzi'ko Atxolin mendi inguruan ere «Pagobedeinkatu» dioten toki bat bada.

«Pagomari» izena duan beste pago bat Alarmendin, Irâtza inguruan dago. Aren aurretik igarotzean artzaiak ziñatu eta otoitz egin izan dute, bere azpian neskatu bat lurpetua dagola ta.

Toki artan elkarren arteko naitasunaz zoratu emen ziran neska-mutil bi. Mutila ikaslaria izan, eta oregatiz uda azkenean ondik al-dendu bearean gertatu emen zan. Bañan neska-mutil oek Egoarietako opororoan toki artan beñiro biltzeko itza elkarî eman zioten. Neskatxa Egoarietan mendira igo ementaan; bañan ez ala ikaslaria; egoaldi txarâk eman da bere etxean gelditu emen zan. Neskato bakara, mendi aietan elur-ekaitz izugarî batek eman da, «Pagomari-ren» azpian il emen zan. Baita geroago an bertan lurpetu emen zuten.

ABERE DONTSUAK

Beia, astoa eta zakuraren mingaña «bedeinkatuak» diralako entzutea da Oyartzunen.

Erlea ere «bedeinkatua» da, toki askotan diotenez. Erleen jabearen etxekoen bat iltzen bada, jakinerazo bea zaiote erleai; bestela oek urte bete garânerako galtzera etortzen emendira. Bañan jabearen etxekoa il dala adierazi ezkeru, urte artan argizari geiago egiten dutela saritan entzun izan degu. (Ataun).

Ez astoazaz, ez erleazaz eta ez beiezaz *akabatu* diranik ez da esan bea; *galdu* egin dirala baño. «Akabatu» suga, zapo eta beste pixti txarântzat bakarik da. Erlea ez dala diruz sal-erosi bea dan gauza, eñi batzuetan diote. (Ataun).

Jainkoaren txakura deitzen zayon aña, mintxeñeta txuria, Mari-gorî, eta ofelako zomoño batzueri bizia kentzea gauza txarâtxat daukate askok.

Lenbiziko ortzaldiko ortz eroriak Zeanuriko umiak Saguxarari eskeintzen dizkiote. Gauean etxe inguruan saguxara ikustean, ortz eroria berari bota oi diote esanaz:

«Sagusafa,
Eutzi agin safa,
Ekasu agin barie,
Sagusaf bafagafie».

Marigoñik eta Marije taletukok (edo Marije taletuganeko) elkarren antza badute. (1)

Marigoñi zomoño txiki bat da (*coccinella septem punctata*). Zer egoaldi egingo duan jakiteko berari deitu oi diote umeak. Eskuko beatz andi-urënean ipiñi eta bera gorantz dijoan bitartean esan oi diote:

«Mari gofi, gona gofi,
Biaf euzki ala ebi». (Ataun).

Egâtzen bada egoaldi ona, eta luferatzen bada txara izango da-la esan oi dute.

Esan liteke, toki batzuetan zomorotxo au egoaldiaren jaun eta jabetzat daukatela. Egoaldi ona egiten badu saria eta txara egiten badu zigorkada eskeintzen diote.

Marije taletukori eta Marigoñi'ri ortz zârak eskini eta beñiak eskatu oi dizkiote efi batzuetan.

Beñizen, ume bati ortz edo agin bat erortzen bazaio, beura telatura bota beaf du, beña jaiotzea nai badu, esanaz:

«Maritxu taletuko
Gona gofi dune,
Arlizu agin zafa,
Tekatzu barije».

Baita mendietan aditzen dan oyartzuna ere Marije taletukori ezari oi diote Erigoitin. (2)

Ora bada nun gure aurekoak sua, sagusara, Marigoñi, Marije taletuko eta orelakoak, gizona baño almentzuagoko izakitza eduki izan dituzten, eta berari otoitz egin dieten, jainkozkoak balira bezela.

Abere gaizto edo deabruzkoen entzutea ere badegu Euskalerian. Alarmendiko San Mielen eliza-azpian dagon leizean iraunsuge bat antziñako denboratan bizi izeten emen zan. Iraunsuge orek, erietarra jetxi ta, ondamen eta eriotza asko egifi oi emen zituan, eta gero eguneko kristau bat, bera leguneraziko bazuten, leizera bialtzen

(1) *Marije taletuko* telatuan bizi dala iste dute.

(2) Berastegin armariari ezartzen diote oyartzuna.

emen zioten, alik eta San Mielek, Goñiko Zaldunaren deiez, lepoa moztu zion arteraño.

ANIMAK ETA IZUGARIAK

Animak, eñañu bat bada Atarabiren Elduayen'go ipui izugaria adirezten du.

Mateo txistu, gaueko eiztari entzute aundiko ori, ez oidu iñork ikusi. Bañan ilargitan iñoiz bere eñañua ikusitako aditzea bada Ataunen.

Sorgiñari miñ emateko, ez da bere soñean jo beař, bere eñañuan baño. (Oyartzun).

Anima aize bat dala esaten digute beste esaunda eta ipui batzuek.

Orain dala bi urte Napaño'ko Burunda'ko erotari bat il zanean, aize bolara aundiak Ataunen izan ziran. Errotari aren anima, len ostutako lakak biurtzen zebilela esaten zuten.

Ildakorik agertu diralazko entzuteak sañitan jakiten ditugu. Promes edo agintēn bat betetzeko bitartekoen bila etorī oi dirala esaten dute geienetan. Agintea betetzean, berīro agertu dirala usoen itxuran maiz aditu izan degu.

Ildakoak beste munduan janari, soñeko eta izkilu beařa izango zuten uste eta sinismena bazuten nunbait antziñako eusko-jentilak. Orduko ilobietan arkitu izan ditugu aberien ezur, eta antzinako izkilu eta kutunak ugari.

Oitura onen oarkun batzuek oraindik gaurko erietan bilatu gentzazke. Gipuzkoa'ko Vilafranka inguruan goraizak iñoiz ipiñi oi dizkiote ildakoari.

SORGIÑAK, LAMIÑAK, ETC.

Sorgiñ, lamiñ eta intxixuagaz gauza asko esan litezke; bañan lan au luzetxoa izango litzake gaurko. Izako oek danak dira jentilgaraitik datozkigunak.

Gure erietan sorgiñezaz esaten diran gauza geienak munduaren alde guztietako sorgiñen esakunak dira. Tesaliako sorgiñen oiturrak Apuleyok utzi zizkigun idatziak: esan liteke gaur bertan idatziak daudela.

Euskaleriko sorgin-biltokiak Akelaré eta Eperlanda izentzat izan oi dituzte.

Aidean ibiltzea; gauza astunak jasotzea; katu, zomoño, eta beste aberen irudiak artzea; ekaitzak zabaltzea; itxasontziak eta kanpoko gauzak galtzea: oek eta beste orélako almenak dituzte emengo sorgiñak, esan oi denez.

Sorgiñai orélako almenak ematen dizkien izakiak, *Prakagofiak* dira.

Prakagofi edo *galtxagofi* edo *famerilak* «parte txarékuen dokumentuak» dirala esaten dute. Askoren ustez prakagofi oek elixoen irudikoak dira. *Solube mendian*, ez dakit urteko zer gauetan, jostoratzauntzi bat irikita edukitzen bada, bertan famerilak sartzen emen dira; gero jostoratzauntzia itxi eta beraren jabeak sorgiñen almen danak beretzat izango emen ditu.

Baita sorgiñ biurtu liteke Eliza bati iru jira-bira eman ezkeror. (Berastegi).

Sorgiñak badute akerakin zer ikusia. Dimako ipui batek dionez sorgiñak akeraren irudian iñoiz agertu eta ibili oi dira. Antziñako sorgin bilerak akeraren menpean egin oi ziran, eta beura sorgin danak agurizen emen zuten Akelarén.

Euskaleriko arizubi batzuek sorgiñak diralazko entzutea bada.

Oyetako bat Azalaingo zubia da. Ona emen Andoaingo esaunda bat:

«Sorgiñak egiña da
Azalaingo zubia,
Eskutikan eskura,
Belkoaindik jafia». (1)

Afia Larhun'dik ekañi zutela diote Oyartzunen. Alarño Larunari'tik eramana dala entzun nuan Ataunen, eta sorgiñak ez bañan deabruak zirala. Eskuz-esku *otsok Mikolas, ekatzak Mikolas* esa-

(1) *Belkoain* Sorabilako mendi bat da.

nez, ogelta amairu mila Mikolasek aña gau batean eraman zutela diote.

Era oñetan Kastejanako ta Oñatiko San Pedroko zubiak egiñak dirala esan oi da: bata deabruak eta bestea sorgiñak.

Lamiñak, erdi emakume erdi añai, efomataren Ninfa'en antze-koak dira. Oñelako sinismenak emen izan ta, ez da añitzeko gauza Ninfaren elizkizunak Euskalerian eñez sartzea. Oñegatik nunbait Arayan Aldare-añi bat aientzako zutitu zuten, Alegian Tulonio jainkoizunarentzako eta Laguardian Usoentzako bezela.

JENTILAK

Jentilen entzutea Euskalerian guztiz zabaldua dabil. Añi zutiak, tregoariak, leiza batzuek, antziñako etxe, eliz, eta ermiñak jentilak egindakoak diralazko entzutea ez da oraindik galdu.

Gizonak bere indareñ ezin egin dezazken gauza asko jentilai ezari oi zaie.

Jentil bati, Estelara botatzera zijoan añi aundi bat, eskutik jauzi eta Andia menditik bera amilduta, Tañanon dago oraindik, esaten dutenez. Baita añi oñek jentilaren beatz aztarnak an dituala diote.

Urdiain'en da beste oñelako añi aundi bat: jentil batek San Pedro'ko erminñ ingurutik eramana dala da esaera.

Alarmendin, Alotzako zelayan dago Saltari deritzayon añi luze bat. *Murumenditik* jentil batek abalaz bota zuala ango artzaia aditu izan diegu.

Zerain'go Ageñe inguruko *Txoritekoa* aitza Aizkoñitik Alañera jentilak, berarekin pelotan zebiltzala, eskuetatik jauzia emen da.

Motrikon, Ataunen eta Plazentzin ere oñelako ipulak esaten dituzte.

Jemein'go eleiza jentilak *Igozmenditik* abalaz botatako ariarekin egin emen zuten; Zumafagako Antiguako eliza beriz Aizkoñitik jentilak botatakoakin.

Lan oetako asko Eñolan'i ezari diote Napañean eta Sanson'i Gipuzkoan.

Atako aña eta Leiza'ko Belarzinketako aitzia Errolanek bota emen zituan: bata San Miel menditik eta bestea Aizarandik.

Ursuarango Aitzorotza eta Ondarfaizko aitzak Sansonek boia zituala esaten dute.

BAXAJAUN

Jentilen antzeko ipuiak Baxajauneri askotan ezarri oizizkiete. Geienetan gizonen erakoak zirala eta kristauak baño indar eta azkartasun geiago zutela esan oi da. Toki batzuetan esaten dute Baxajaunak gizonen antzekoak izan aŕen, beren oñetan erpiak zituztela.

Napañoako Basoko Marie Baxajaunen antzekoa izan bear zuan.

Izaki oek beste Europako antziñako jentil erligioetan ikasi izan ditugun mendietako jainkoizunak zirala ikusia dago.

TARTALO

Euskaleriko Tartalok Gerka'taren Polifemoren ipuia berbera du. Ataungo Muskiko artzulo bat eta Zegamako Tartaloetxê'tako tre-goaria izan emen ziran bere bizitokiak.

GAUEKOA

Gauêkoa edo Gaue-gauêkoa beste urtizko edo deabruzko izaki bat da,

Beraslegiko neskatx bat, beren etxeko leioan gauez ilargitan ardatzean ari zala, batebatek itxâsi eta eramane emen zuan, esanez: «Gaue gauêkoentzat eta egune egunezkoarentzat.»

Ipui onen antzeko beste bi badira Oyartzunen eta Ataunen.

Umeak izutzearen ere, gaue gauêkoa askotan aitatzen dute Ataunen.

Esan liteke gaue gauêko ori, bere atsegiña aztoratzerik nai ez

duan urtziren bat dala. Ofelako jainkoizunak beste tokietan ere baziran. Ona emen C. P. Albinovanus'ek Germanicoren gudalariezaz zer dion:

«Di revocant, rerunque vetant cognoscere finem
Mortales oculos: aliena quid æquora remis
Et sacras violamus aquas, Divunque quietas
Turbamus sedes?»

ONENZERO

Onentzero, Olentzero, Onantzaro, Orantzaro, Onontzoro du bere izena, Napaño'ko eta Gipuzkoa'ko muga inguruetako erietan Gabon batean agertu oi dala esaten duten izaki batek.

Diotenez, Onentzero umientzat izugaria da. Begiak gorri, aurpegia beltz, bizkarean ota-sorta, eskuan iditaia.

Gabon gabea tximinian egoten dala esaten dute: ofegatik gabon egunez tximinia ondo garbitu oi da.

Apalondoa etxeokak oira juaten diranean, Onentzero zukalderajetxi eta bertan jaun da jabe gaua igarotzen emen du. Gau oni toki batzuetan *Onentzerogaba* edo *Orantzaroafatsa* deitzen diote.

Oyartzunen, Lizartzan, Andoainen eta beste toki batzuetan mutilak Onentzero'ren irudia bizkarean artu ta eskean etxez-etxe ibili oi dira, berarentzat limosna biltzen dutela.

Asi Napañoatik eta Arabako atzenmuga bitartean, an emen, an emen, oraïndik bizi da Onentzerorekin zer ikusi aundia duan antziñako jentil oifura bat. Gabon gabea enbor aundi bat sutan ipiñi oi diote. Batzuek *Onentzeroenbofa* (Oyartzun), besteak *Poñondo-ko* (Salvatierra) deitzen diote. Baita Eskiroz'en eta Elkanon (Navarra) iru enbor jafi oi dituzte: bata Jainkoarentzat, bestea Andra Mariarentzat eta irugafena etxeok familiarrentzat.

Gabon gabea sutan egon dalako, enbor onek (Jainkoarenak) tximistaren kontra onbide eta indar aundiak dituala uste dute askok. Baita bere gañetik igarotzen dira etxeok kristau eta abereak efi askotan, atzik edo sarnarik izan ez dezaten.

Oitura oek jentilgaraikoak dirala, Dumiako San Martiñen «De Correctione rusticorum» deriltzan idatziak adierazten digu.

Onentzeroren antz aundia du Doniñetan zenbait tokitan erabili eta efetzen duten irudiak. Antz aundiagoa beriz Arabako eri batzuetan Urtezar egunez efetzen dutenak.

MARI

Beste urtizko izaki askoren entzuteak ere Euskalerian badirala esan gentzake. Oetako bat *Mari* da. Ara emen bere izenak: *Jona-gori*, *Puia'ko Maia*, *Sugâra*, *Anboto'ko Damie*, *Akelegi'ko Damea*, *Marije kobako*, *Mariafoka*, *Marimunduko*, etc.

Toki batzuetan (Azkoiti'n, esate baterako) *Anboto'ko Dameari* bere senar *Maju*, bere beařetako lagun, ezari oi diote. Ekaitz aundietan bere zaldi eta gurdiakin aidean dama au agertu oi dala ere esaten dute. Beraren gana izkutuko gauzen batzuek jakiteko eta etofkizuna azaltzeko lenago joaten ziran entzutea oraindik bada. Lagun asko bere mendekoak zituala; bere bizitokira sartzen zana, sartu bezela irten beař zuala, bestela Dameak bařuan gelditu-erazitzen zuala; batzuetan ardatzean bere leize ařean, bestietan labezu egiten, arilketan Aari batarilkaritzat duala; aari baten gañean zankaletra, aari bat bere burukotzat duala etzanda egoten dala; izugarizko ekaitz baten gañean dabilela; oek eta beste oen antzeko entzuteak Dama onezaz aditu ditugu.

Bai emen zuan alabatxo bat ere: ez dakigu bere beste beřirik, Doniñe goizean bere amarekin agertu oi zala bařio.

Eřietan beař txarrik Marik egin etzezan, Ixasondoko apaiza eta Arantzazuko praileak Murumendira eta Aloñara Damia konjurațera noizean bein igotzen zirala oraindik esaten dute,

¿Eta gauza oek danak zer esan nai digute?

Baldin iñusteri, tximist eta ekaitzen zuzendaritzat eřomatařak beren Jupiter bazeukaten, eta beren Tor izugaria antziñako germandatařak, berealaxe Euskaleriko Jupiter eta Tor esan liteke Marimunduko edo Anbotoko Damia eta bere senar *Maju* izan dirala.

Antziñako gergatařak uste zuten beren urtzi Zeus'ek bere alme-

nak aizkora bategaz agertzen zituala. Baita aizkora onetan jainkozko indar edo tximista bildua zegola sinisten zuten. Sinismen onen aztarnak Euskalefian baditugu. Gaur oraindik toki askotan tximisteketan dagoanean, aizkora bat, aiaz gora begira, atariko atiaz kanpotik ipiñi oi dute; aizkorak oñaztaratatik zainduko dituala uste dutelako.

EGUZKIA ETA ILARGIA

Eguzkia eta Ilargia ere urtizaz noizbait artutako oroipenak badirala esan liteke.

Ilargia Jesusen aurpegia dala Larabezuan umiai esan oi die; Abadianon eta Berastegin beñiz Jainkoarena dala; eta Elduayen Jainkoaren begia.

Ataunen eta Ormaiztegin Ilargiari, «amandrea» deitzen diote. Berari begira onoko itz oek abestu oi dituzte:

«Ilargi amandrea,
Zeruan ze beñi?
—Zeruan beñi onak
Orain eta beñi.»

Onelako abestia Andoainen Marigoñirentzat aukeratu zuten nunbait. Beura beatzean artu ta, esafen diote:

«Amona manta gofi,
Zeruan ze beñi, etc.»

Len esan ditugunez gañera, esan liteke Ilargiak, Marigoñik eta Marije taletukok ze ikusi aundia elkarren artean antziñako euskal sinismenetan bazutela.

Ondarñan itz oiek Santa Clarari esafen dioete:

«Liso zuri edefa,
¿Zeruan ze beñi? etc.

Beste toki batzuetan beñiz «amandrea» eguzkiari deitzen diote. Elosun eta Plazentzin, Eguzkia sartzean esan oi dute:

«Eguzki amandrea,
Badoya amangana,
Biar etofiko da
Denpora ona bada.»

Au berau Eguzkiari Erigoitian eta Kortezubin esaten diote. Ez det oraindik Eguzkiaren ama zein dan asterik inun atera, nai izan aŕen.

AZKEN AGURA

Euskaldunak: eskerak danori, nere itzaldi au entzuteko igaropena izan dezutelako. Eusko-mitologiaren oñari eta aster batzuek laburki zuenbegien aŕean jari nai izan ditut. Antziñako siñismenen eta oituraen aztarnak ikusi ditugu. Aztarna oiek emen, Euskalerian bertan sortuak ez badira ere, gure aŕekoak berentzat noizbat artu zituztela ezin gentzake ukatu: emengo mendi, leize, ituri eta ofelako gauzari ezariak bait-daude simismen oiek. Homero edo Herodoto batek uts egin digu; bañan oen tokian Folklore-ikaskuntzak antziñako erligio, oitura eta esamesen beriak azaltzen dizkigu.

Oraindño gai onetan egindako lana oso labura da. Garaiz gaude beaŕ onĩ ekin nai badiogu. Beraren bidez izkutuko gauza asko azalduko dira beaŕ bezela saiatzzen bagera.

Guztiori nere agura, eta elkari eusko-ikaskuntzaetan lagunduez aŕera geren lanetan jaraitzeko deia.

Amaitu det.

✻ J. M. Ba andiaran ✻